UEMA
UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA
L.G.: SS 347-2015

BERRIPAPERA

2016ko maiatza • 43. zenbakia

UEMAk 25 urte bete ditu: euskaratik eta euskaraz, 25 urte bidea zabaltzen

Udalerri Euskaldunen Eguna, Leitzan

Maiatzaren 28a, festa eguna

Udalerri euskaldunen ekarpena aitortzeko eta ospatzeko festa eguna izango da, egun osoko egitarau oparoarekin. 4-5 orr.

Euskara eta EAEko Udal Legea

balorazio positiboa egin du UEMAk

EAEko Udal Lege berria urrats garrantzitsua da, euskararen aldeko hizkuntza politikak garatzeko aurrerapausoa delako. 6 orr.

UEMA: 25 urte bidea zabaltzen

1991ko maiatzaren 5ean sortu zen UEMA, 19 udalek Aizarnazabalen egindako batzarrean

Udalerri euskaldunetarako lan-ildo estrategikoak, UEMAren berripapera, Udalerri Euskaldunen Eguna, gai zehatzen inguruko jardunaldiak... 25 urtean hainbat esparrutan aritu dira udalerri euskaldunak elkarlanean.

Sorrera eta lehen urratsak

Udalerri Euskaldunen Mugimendua 1988an sortu zen, Euskal Herrian Euskaraz elkarteak urte hartan udaletan aurkeztu zuen mozio baten inguruan. Mozio hark herri euskaldunetako udalek euskara hutsean lan egitea proposatzen zuen, eta Euskal Herriko 32 udalek onartu zuten. Mozioarekin batera, "Euskararen Erabilpena Normaltzeko Udal Arautegia" onartu zuten, administrazioan eta udalerrietan euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzeko eta bitartekoak jartzeko asmoarekin.

Onartutakoa bete nahian hastean, ordea, udal haiek laster konturatu ziren aurrera egin ahal izateko beraien arteko koordinazioa beharrezkoa izango zutela, eta mozioa onartu zuten udaletako batzuk elkartzen hasi ziren. Koordinazioa ez ezik laguntza teknikoa eta juridikoa ere beharko zutela ohartu ziren, eta EKBk (Euskal Kulturaren Batzarrea) eskaini zien hura, horretarako Birreuskalduntzearen Planifikaziorako Zerbitzua (BPZ) sortuz.

Elkartzen hasi ziren udal haiek *Udalerri Elebakarrak* izena hartu zuten, baina *elebakar* hitzarekin nahasmena sor zitekeela iritzita eta herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatu nahi zituztela kontuan hartuta, Udalerri Euskaldunak bihurtu ziren.

> **"1988an EHEren mozio bat onartu zuten udalak elkarren artean biltzen hasi ziren, euskaraz lan egin ahal izateko"**

UEMA: 1991ko maiatzaren 5ean, Aizarnazabalen

Hurrengo pausoa Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea sortzea eta estatutuak onartzea izan zen. 1991ko maiatzaren 5ean Aizarnazabalen Udalerri Euskaldunen Eguna antolatzea erabaki zuten, festa eta aldarrikapena uztartuz, eta UEMA osatu zuten lehen 19 udaletako hautetsiek egun hartan egin zuten bilera eta UEMAren sorrerako batzarra. Estatutuak onartu ondoren, 1992ko apirilean erregistratu zuten mankomunitatea.

Urrats horrekin, hasieran mugimendua zenak izaera juridikoa hartu zuen, eta UEMA udalak biltzen zituen mankomunitatea izanik, erakunde publikoa ere bihurtu zen. Lehenengo 19 udal haiek udalerri txikietakoak ziren, eta ez zuten baliabide handirik, eta UEMA hasi zitzaien udala euskalduntzeko behar zituzten baliabideak eskaintzen eta ematen.

Denborak aurrera egin ahala, udal berriak gehitzen joan ziren, eta arazo administratiboak eta oztopo juridikoak ere heldu ziren. 1995ean Espainiako Epaitegi Gorenak UEMAren estatutuak ez legezkotzat jo zituen, eta mankomunitateak estatutuak berritu eta egokitu behar izan zituen, beti ere hasierako helburuei, funtzionamenduari eta lanari eutsiz.

1991ko maiatzaren 5ean Udalerri Euskaldunen Eguna ospatu zuten lehen aldiz Aizarnazabalen, eta egun hori baliatu zuten hainbat udaletako ordezkariek UEMAren sorrerako lehen batzarra egiteko. Argazkia: EGUNKARIA

Oztopoak oztopo, udalak euskalduntzeko borondate irmoa azaldu zuten udalerri euskaldunek, eta helegiteei eta epaiei aurre eginez, euskaraz lanean jarraitzea erabaki zuten.

25 urteko ibilbide emankorra

Hasieran dena egiteko aurkitu zuten udalek, eta behar horri erantzun zion UEMAk: inprimakiak, aktak, txostenak, kartelak, errotuluak, irudiak eta abar euskaraz eskainiz. 25 urteko bidean, eremu instituzionalean, euskalduntzeari dagokionez, erreferentzia bilakatu da UEMA. Izan ere, euskaraz funtziona daitekeela eta funtzionatu nahi dutela erakutsi dute bertako udalek. Instituzio mailatik haratago, herritarrentzako nahiz merkatarientzako zerbitzuak ere eskaini izan ditu, beharren arabera.

Hasierako 19 udal horiek 75 dira gaur egun, eta herri txikiak ez ezik tartean dira Zarautz, Tolosa, Bergara, Bermeo, Azpeitia edo Oñati bezalakoak ere. Guztien artean, 200.000 biztanle inguruko lurgunea osatzen dute UEMAn dauden udalerri euskaldunek, eta lurgune honek euskararentzat duen funtzio estrategikoa ikusarazten ere lagundu du UEMAk, euskararen arnasguneak babestuz eta sendotuz.

Gaur egungo ildoak eta etorkizuna

UEMAk gaur egun hainbat ildo eta zerbitzu ditu, euskaraz bizi nahi duten udalerrien beharrei erantzuteko. Udalen euskalduntzeaz gain, udalerri euskaldunen zaintza eta garapena, eta bertako herritarren sentsibilizazioa eta ahalduntzea dira nabarmenenak, horietan eragitea euskararen arnasguneei eusteko ezinbestekoa dela iritzita.

Hau dena herriz herri bideratzeko lan-talde teknikoa du UEMAk, udal ordezkariek osatutako zuzendaritza batzordeak zehazten dituen ildoei erantzuteko.

ANTTON IZTUETA,
UEMAko lehen lehendakaria

Antton Iztueta 1991-1995 urteen artean izan zen UEMAko lehendakaria, Altzoko zinegotzia eta udal ordezkaria zenean.

Nola gogoratzen dituzu lehen urratsak?

Gure udalerriak euskaldunak ziren, baina udalak erdaraz aritzen ziren. Guk, ordea, euskaraz bizi nahi genuen eta eskubide hark bazuen instituzionalizazioaren beharra. Horrela hasi ginen lehenengo urratsak ematen eta biltzen, Aizarnazabalen. Halako batean, udalek euskaraz aritzeko erakutsi genuen asmo hari forma legala eta instituzionala eman behar geniola ikusi genuen, eta hortik sortu zen UEMA.

Lehenengo urte haietan bidaia ugari egin behar izan genituen harremanak zabaltzearren. Bai udalekin, bai gobernuarekin, alderdi politikoekin, eta abar. Indar abertzaleen artean konfrontazio handi samarra zegoen garai hartan, eta elkar hurbiltzeko ahalegina egin behar izan genuen. Ez zen erraza izan. Alderdi espainolistek, berriz, ez zuten gurekin biltzeko borondaterik ere erakutsi. Zailtasunak eta trabak hasieratik izan ziren, beraz. Estatua ere gure kontra hasi zen, egiten genituenak ezin genituela egin esanez, gaur egun ere oraindik erabiltzen dituen argudio berdinekin. Baina guk aurrera egitea erabaki genuen, eta bidea eginez joan ginen.

25 urte geroago, zer nabarmenduko zenuke UEMAk herri honi egin dion ekarpenetik?

UEMAk gazteleraz bizitzearen inertziatik atera ditu udalerri euskaldunak. Erakutsi digu gure hizkuntza normaltasunez erabili behar dugula, hizkuntza gutxitua dela, eta gainetik kendu behar ditugula inertziak eta lotsak. Gu ere bagarela nor. Euskaldunak garela. Bide horretan, UEMA laguntzailea eta bide urratzailea izan da.

Udalerri euskaldunen eguna

Udalerri euskaldunen Eguna Leitzan izango da aurten, maiatzaren 28an, eta udalerri euskaldunek egindako ekarpena aitortzeko hainbat ekitaldi izango da

UEMAko kide diren udalerriekin ez ezik, Euskal Herri osoko gainerako udalerri euskaldunen parte-hartzearekin ospatuko da aurten ere Udalerri Euskaldunen Eguna. Leitzako Udala eta UEMA elkarlanean hasi ziren eguna antolatzen, eta berehala elkartu zitzaizkien Leitzako hainbat elkarte. Guztien artean, adin guztietarako eta egun osorako egitaraua osatu dute: UEMAren batzar nagusia eta ekitaldi instituzionala izango da, baina baita herrien arteko kirolak, haurrentzako ikuskizuna, bazkari herrikoia eta kontzertuak ere.

Azken aldiz Tolosak hartu zuen Udalerri Euskaldunen Eguna, 2014an. Ohi bezala, ekitaldi instituzionalaz gain, herritarrek jaia eta aldarrikapena uztartzeko eta ondo pasatzeko hainbat ekitaldi ere izan zen.

Udalerri Euskaldunen Eguna aurten Leitzan ospatzeko aukera mahai gainean izan orduko, Leitzako Udalak eta bertako hainbat elkartek eta kultur eragilek bat egin zuten eguna antolatzeko talde-eragilean.

Honela, azken hilabeteotan, UEMAz, Leitzako Udalaz eta Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako Euskara Zerbitzuaz gain, beste hainbat eragile ereburu-belarri aritu dira Udalerri Euskaldunen Eguna antolatzeko bileretan. Besteak beste, Denok Bat Guraso Elkartea, Aurrerako dantzariak, Aurrera Elkartea, Kultur Taldea, Atekabeltz gaztetxea, Karrape irratia, Kiliklon ekoizpenak edota Bertso Eskola.

Guztien artean, egun osorako hainbat ekitaldi antolatu dituzte maiatzaren 28rako, adin eta gustu guztietarako eskaintza eta festa eguna osatu nahian: zenbait udalerri euskaldunen arteko herri kirolak, bazkari herrikoia, bazkalostean kantaldia eta haurrentzako ikuskizuna, egun osoan zehar kale animazioa, elektrotxaranga, eta eguna amaitzeko baita kontzertuak ere.

Ekitaldi instituzionala eta UEMAren batzar nagusia ere izango dira

Euskararen arnasguneak sendotzeko eta herritarren kontzientzian eragiteko, instituzioen, eragileen eta herritarren arteko elkarlana bultzatzea izan ohi da Udalerri Euskaldunen Egunaren asmoetako bat, hasieratik. Festa giroko ekitaldiez gain, beraz, izaten da ekitaldi instituzionalik ere.

Goizean, esaterako, udal ordezkariek UEMAren batzar nagusia egingo dute Leitzako udaletxean, eta eguerdian, berriz, ekitaldi insituzionala izango da herriko plazan.

Batzar nagusian, azken hilabeteotan UEMAn sartzeko eskaera egin duten udal berriak onartzea espero da: Dima, Ziortza-Bolibar eta Legorreta. Eguerdiko ekitaldi instituzionalean, berriz, udalerri euskaldunek duten garrantzia nabarmenduko dute, eta baita azken 25 urteotan euskararen normalizazioari egin dioten ekarpena ere. Erakunde publikoetako, euskalgintzako zein beste hainbat alorretako ordezkaritza ere izango da ekitaldian.

Leitza, maiatzak 28

Egitaraua

09:00. Diana txistulariekin. Herriko kaleetan zehar.
10:00. Arnasguneen tailerra. Atekabeltz gaztetxean.
10:00 UEMAren batzar nagusia. Udaletxean.
11:30. Herrien arteko kirolak. Herriko Plazan.
12:30. Ekitaldia: 'Udalerri euskaldunak, 25 urte euskara hauspotzen'. Leitzako Aurrera Dantza Taldearen eta Jeiki abesbatzaren parte-hartzearekin.
13:15. Flash moba: 'Euskara hauspotzen'.
15:30ak aldera. Kantaldia, Angel Mariezkurrena abeslariarekin.
18:00. Haurrentzako ikuskizuna: DJ Porru. Kiliklon ekoizpenak.
19:30. R Ke R elektrotxaranga, herriko kaleetan barrena.
23:30. Kontzertua: Lur J eta Akort. Atekabeltz gaztetxean.

Oharrak:

- Eguraldi onarekin, ekitaldi nagusiak herriko plazan izango dira. Euria egingo balu, berriz, Leitzako frontoian.
- Bazkari herrikoirako txartelak aldez aurretik eskatu behar dira. Egunean bertan ezingo da txartelik eskuratu. UEMAren 943 816699 telefonora deituta.



UEMA sortu eta hiru urtera Leitzan ospatu zuten UEMA Eguna, 1994ko maiatzaren 22an. Festa egun ederra izan zen, eta erakundeetako eta alderdietako ordezkariak ere izan ziren ekitaldi instituzionalean. MARMARI aldizkaria.

HAINBAT HERRITAKO ESPERIENTZIAK TRUKATUKO DITUZTE , ARNASGUNEEI BURUZKO MINTEGIAN

Festa eta aldarrikapena uztartuz, ondo pasatzeko eguna izan ohi da Udalerri Euskaldunen Eguna, baina lanerako eta hausnarketarako tartea ere izaten da egunean zehar. Goizean, zehazki, hainbat herritako esperientziak konpartitzeko aukera izango da, arnasguneei buruzko mintegian.

Arnasguneei buruzko tailerra antolatu zuen martxoan Oiartzungo Udalak, eta erantzun ederra izan zuen.

UEMAk, udalekin elkarlanean, arnasguneei buruzko tailerrak antolatu ohi ditu udalerri euskaldunetan. Hauetan, euskararen normalizazio prozesurako giltzarriak diren elementuak aurkezten dira, eta baita herri mailan eragiteko aintzat hartzeko esparruak definitu ere. Ondoren, identifikatzen diren hutsuneak gainditzeko, herrian bertan egin daitekeenari buruz hausnartzen dute parte-hartzaileek. Herri ezberdinetan hausnartutakoaz elkarrekin hitz egiteko eta esperientzia konpartitzeko aukera izango da Leitzan izango den arnasguneen mintegian.

euskara eta udal legea

"Udal Legeak euskararen inguruan bildu dituen hainbat artikulu, arnasguneen zaintzarako UEMAk egindako bidearen eta lanaren isla dira"

Eusko Legebiltzarrak onartu eta apirilaren 15az geroztik indarrean den EAEko Udal Legeari buruzko balorazio positiboa egin du UEMAk, udalei euskararen inguruko hizkuntza politika garatzeko eskumena eta lege babesa ematen diela iritzita. Ildo horretan, Nafarroako Gobernuari ere bertako udalerri euskaldunak zaintzeko antzeko urratsak eskatu dizkio. UEMAren izenean apirilaren 19an Orion hedabideen aurrean egindako agerraldian, Josu Labaka UEMAko lehendakariak Udal Legea "urrats garrantzitsua" dela eta UEMAk 25 urtean egindako lanaren emaitza ere badela nabarmendu zuen.

UEMAko zuzendaritza batzordeko hainbat kidek Orion agerraldia egin zuten apirilaren 19an, eta EAEko Udal Legea urrats garrantzitsutzat jo zuten, udalei euskararen inguruko politika aurrerakoiak egiteko bermea ematen dielakoan.

Apirilaren 15az geroztik indarrean da Euskadiko Tokiko Erakundeen Legea, eta EAEko udalerrien jardunbidea arautzen duen Udal Lege berri honek hainbat leiho zabaltzen dizkie udalei, euskararen inguruko hizkuntza politikan erabakiak hartu ahal izateko. Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, 25 urtean euskararen aldeko politika ausartak garatzen arituta, oztopo handiak ezagutu ditu antzeko lege batek ematen duen lege babesik gabe.

"Gaur egungo errealitate soziolinguistikoak hizkuntza politika ezberdinak egitea eskatzen du ezinbestean"

Iaz, UEMA Eusko Legebiltzarreko Erakunde, Segurtasun eta Justizia Batzordean izan zen bere ekarpenak egiten Udal Legeari buruzko lan-saioan, eta orain pozik agertu da legeari egindako hainbat ekarpen kontuan hartu direlako.

Izan ere, Josu Labaka UEMAko lehendakariak nabarmendu zuen moduan "EAEko Udal Legea udalerri euskaldunetan abian ditugun hizkuntza politikentzat urrats garrantzitsua dela iruditzen zaigu, hainbat arrazoirengatik". Honakoak aipatu zituen:

- Derrigorrezko elebitasun orekatua arindu da.
- Euskararen inguruko hizkuntza politika zehatzetarako eskumena aitortzen zaie udalei.
- UEMAn sartzeko aukera legez babesten du.
- Kontratazio publikoetan hizkuntza irizpideak txertatzeko aukera zabaltzen du.
- Euskara hutsezko akta, agiri eta dokumentuei balio juridiko argia ematen die behingoz.
- Udalerri euskaldunak subjektu gisara aipatzen dira lehen aldiz.
- Eragin Linguistikoaren Ebaluazioari ere lege babesa ematen dio, hirigintza planek hizkuntzan izango luketen eragina aztertzeko beharra ezarrita.

Hala ere, UEMAren iritziz udalerri euskaldunen ohiko jarduna bermatzeko eta udalerri euskaldunen zaintzarako, oraindik ere, irizpide zehatzagoak behar dira. "Udal Lege honek, beraz, bere garapena ere beharko du, eta bide horretan elkarlanerako borondate osoa agertu nahi diegu alderdi guztiei. UEMAren eskua luzatuta izango dute aurrerantzean ere udalerri euskaldunen zaintza bermatzeko".

Labakak nabarmendu zuenez, udalerri euskaldunek hizkuntza politika berezitua behar duten modu berean, hizkuntza politika hori ahalbideratuko duen lege babes propioa ere behar dute. "Euskaraz bizi nahi dugun herritarron eskubideak berdinak baitira Euskal Herri osoan, baina gaur egungo errealitate soziolinguistikoak hizkuntza politika ezberdinak egitea eskatzen du, ezinbestean".

notzean

Ziortza-Bolibarko eta Legorretako udalek ere UEMAn sartzeko eskaera egin dute

Apirileko udal osoko bilkuretan beste bi herrik onartu dute UEMAko kide izatea eta, beraz, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko eskaera egitea. Bizkaiko Ziortza-Bolibar eta Gipuzkoako Legorreta dira bi herriak, hurrenez hurren. Azken hilabeteotan, Eak eta Dimak ere eskatu dute mankomunitatera sartzea. UEMAk maiatzaren 28an Leitzan egingo duen batzar nagusian espero da eskaera berriak onartzea, eta orduan izango dira herri berriak ofizialki UEMAko kide. Hauek sartzean, UEMA 76 udalerrik osatutako mankomunitatea izango da.

Legorretak pasa den apirilaren 21ean erabaki zuen UEMAra sartzea, udal osoko bilkuran.

Bizkaiko Lea-Artibai eskualdean kokatutako 434 biztanleko herria da Ziortza-Bolibar. Legorretak, berriz, 1.468 biztanle ditu, Gipuzkoako Goierri eskualdean. Biak ala biak udalerri euskaldunak dira. Ziortza-Bolibarren %90a da euskalduna, eta Legorretan %70a. Euskaraz bizi dira batean eta bestean, baina badituzte kezka komunak ere: udalerriak erabat euskalduntzeko eta herritarrek erabat euskaraz bizitzeko aukera izateko bultzada behar dute, eta UEMAk eskaintzen dituen bitartekoak eta zerbitzuak horretarako baliagarriak izango zaizkiela ikusita, UEMAn sartzea erabaki dute, datozen urteotan hizkuntza politika aurrerakoia egiteko gogotsu. Aleka bada ere, azken hilabeteotan gora egin du UEMAra sartzeko eskaera egin duten eta UEMAra sartzen ari den udalen kopuruak. Earen (urtarrilaz geroztik da kide) eta Dimaren (urtarrilean egin zuen sartzeko eskaera) atzetik datoz Ziortza-Bolibar eta Legorreta. Hauek onartzean, 76 udalerri izango dira dagoeneko UEMAko kide, 200.000 biztanle inguruko lurraldea osatuz. Hurrengo hilabeteotarako, gainera, udal gehiagoren eskaera berriak ere espero dira, UEMAko kide izateko.

Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina, abian

Aurten, errenta aitorpena egin daitekeen lekuetan jartzeko euskarriak ere eskaini ditu UEMAk, udalek horren beharra ikusi eta eskatu ondoren.

Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abiarazi du aurten ere UEMAk, bertako kide diren udalekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta beste zenbait erakunde publikorekin elkarlanean. Errenta aitorpena euskaraz egiteko deiarekin, administrazioa euskalduntzea bultzatu nahi da.

Ohi bezala, aurten ere, errentaren gaineko aitorpena egiterakoan, zergadunek hainbat bide dituzte euskaraz egiteko, eta oso modu errazean gainera: lehen urratsetik zein hizkuntzatan egin nahi duten aukera dezakete, eta euskaraz egiteko ez dago inolako zailtasunik. Urtez urte, honelako kanpainen eraginez, gero eta gehiago dira errenta aitorpena euskaraz egiteko hautua egiten duten herritarrak, administrazioa euskalduntzeko ekarpena eginez. Kanpainaren oinarri eta euskarri komunak jaso ostean, udal bakoitzak bere egoeraren arabera moldatu du aurten ere deialdia.

Esku artean duzun *Berripapera* urtean bi aldiz banatzen da UEMAko kide diren herrietako postontzietan. UEMAren berri izan nahi duenak, ordea, sarean ere aukera zabala eta hurbila du, urte osoan zehar. Webguneko edizio jarraituaz gain, sare sozialetan ere aurki daiteke UEMAren berri. Argitalpenak, berriz, Issuu bidez irakur daitezke, PDFan. Emari hilabetekaria, esaterako.

uema.eus @uema_eus UEMAeuskaraz issuu uema_eus YouTube UEMAeuskaraz